

Ataekaria

Revista de la Asociación de Técnicos de las Artes Escénicas

ATAE

Etorkizunerako apostua ARTE ESZENIKOEN GOI ESKOLA




Una apuesta de futuro
ESCUELA SUPERIOR
DE ARTES ESCÉNICAS

ATAE



CHARGE®XTi



133
€

Led Lenser 7737



46,4
€

Oferta para los socios de ATAE:


Para pedirlo llama a nuestra oficina
Portes incluidos

ATAEko bazkideentzako eskeintza berezia:

Eskatzeko deitu gure bulegora
Etxeraino eramatea barne

944.014.248
615.731.729

Donosti Ibilbidea n° 100 nave 10
20115 ASTIGARRAGA - GUIPUZCOA
APARTADO POSTAL 111
Tfno: 943 337 150 | Fax: 943 333 193



Ataekaria



Revista de la Asociación de Técnicos de las Artes Escénicas

ATAE

**Erredakzioa, banaketa eta publizitatea-
Redacción, distribución y publicidad:**

ATAE

Bulegoa/Oficina:

Juan de Gardeazabal, 3. 48004-BILBAO

Helbide postala/Dirección Postal:

1194 postakutxa. 48080-BILBAO

Tel: 944.014.248
615.731.729

E-maila: info@atae.org

Web orria: www.atae.org

**Jendaurreko ordutegia/Horario de
atención al público:**

Astelehen, asteazken eta ostiraletan
10,00etatik 14,00ak arte

10,00-14,00 horas, lunes, miércoles
y Viernes.

Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari honetan
idazten duten laguntzaileen eritzien ardurarik
La Asociación no se hace responsable de las opiniones
vertidas por sus colaboradores en esta revista.

Dohako banaketa- Distribución gratuita

Eskatu gabeko kolaborazioak 1800 karaktereko
gehienezko luzera izango dute (tarteak barne). Horrela
izan ezean, Ataekariaren erredakzio-taldeak eskubidea
izango du testua ebaki edo laburbiltzeko.

Las colaboraciones no solicitadas habrán de tener una
extensión máxima de 1800 caracteres (espacios
incluidos). En caso contrario, la redacción de Ataekaria
se reserva el derecho de cortar o resumir el texto

*Recuerda que nuestra oficina está en los
locales de Bilbao Eszena:*

C/ Juan de Gardeazabal 3
48004 Bilbao
944014248 / 615731729



Batzordetik	
Desde la Junta	4
Boleen artean...Batzarra	
Entre bolo y bolo...Junta	6
El rincón de Elías	8
Ezagutu...	
Conoce a...	9
Ataeren bost lan-taldeak martxan dihardute	
Atae mantiene en marcha cinco equipos de trabajo	10
Una Escuela de Artes Escénicas para todos	
Denontzako arte eszenikoen estola	12
Eritzia/Opinión: Arte Eszenikoen	
I. Jardunaldietatik ateratako ondorioak Conclusiones sobre las I Jornadas de Artes Escénicas	14
Funtsezko aldaketak ewb orrian	
Cambios sustanciales en la página web	17
Zalantza Metodikoak	
Dudas Metódicas	18
Baskideentzako eskeintza berria	
Nueva oferta para socios	19
Deskontuak	
Descuentos	20
Material Bibliografikoa	
Material bibliográfico	21
Ataeren Apala	
El anaquele de ATAE	22

EZ ESAN. EGIZU! NO DIGAS. ¡HAZ!

■ Badira iadanik lau urte ATAEn teknikari taldetxo bat biltzen gara. Eta ze teknikari klase? Ba, tabernaren baten barran helduta edo ikuskizuna eratu dugun edozein lekutako kaxen artean galduta izaten ditugun boloen osteko asaskaldiak baino haruntzago joan nahi dugun teknikariak, hain zuzen ere.

Eta kontuak ez zaizkigu horren gaizki atera, zeren eta 180 baino gehiago bait gara dagoeneko!

Lortu dugu Bilbaoeszenan egoitza izatea, egun erdiko lanaldia duen langilea kontratatzea (egun erdiko, azkenean bai), WEB orria antolatatu dugu, ATA EKARIA izena duen aldizkaria argitaratzen dugu... Ez da gutxi. Baina oso garesti ateratzen zaigu tresna guzti hauek sortu eta mantentzea, eta ez bakarrik alde ekonomikotik begiratuta.

Baditugu bazkide batzuk Batzordean lanean aritzen direnak, hilean behin edo bitan bidaiatu eta bildu egiten direnak, eta bien bitartean postaz komunikatzen direnak. Horrela mantentzen dute martxan ATA Eren makina, bertan ze proiektutan sartuko garen, zeri edo nori emango diogun laguntza eta non eta zeri buruz antolatuko ditugun ikastaro berriak erabakiz.

Baina ez da nahikoa. ATA Ek bere bazkide guztien ekarpena beharrezkoa du.

ZER EGIN?

Denok eman dezakegu zerbait: gure denboraren kuota bat (kuota ekonomikotik at) Gure ordutegiaren ataltxo bat gorde diezaioguke elkarteari: ATA Eren ORDUA.

Beharrezkoa izan ezker, gure planning-ean marka dezakegu: "astelehenero, 20:00etatik

21:00etara, afaldu baino lehen, ATA E" ikastolan eta etxerako lanak hurrengo egunean aurkeztu beharrean egongo bagina bezala.

Eta zertarako gure ATA Eren ordua? Ba gure ATA EKARIA irakurtzeko, gure WEB orrian sartzeko, egunez eguneko informazioa jasotzeko (gure ekarpena izan daiteke egunean egotea, informatuta egotea, horrela Elkartea hobetuz). Horretan aritu ezker, berehala sortuko zaigu dauden foro ezberdinetan eritzia emateko beharra, edo foro berriak sortarazterarena. Horrela sortuko dugu "ATA E eritzia", eta areago, gure lanbidea sortuko dugu.

Beharbada zure eta beste bazkideen "ATA E ordua"ri esker posible izango da etorkizunean teknikarien hurrengo belaunaldia lanaldi berean hamar orduz jarraian baino luzeago ez aritzea, arnesa jantzi gabe fokorik ez mugitzea eta bolo bat egiteko bidaiatu behar ba du, bidaiaria eguna kobratzea.

ATA EKOA ZARELA ESAN BAINO, EGIZU EGINATAE.

▲ Hace ya cuatro años que en **ATAE** nos reunimos un grupo de técnicos que queríamos ir más allá de los típicos desahogos postbolo, apoyados en la barra de un bar, o perdidos entre cajas de cualquier lugar habilitado para representar un espectáculo.

Y la cosa no ha ido mal del todo porque ya somos más de 180.

Nos hemos dotado de una sede en Bilboeszena, de una trabajadora a media jornada (sí, ya a media jornada), de una página **WEB**, de una revista llamada **ATA EKARIA**... Ahí es nada. Pero todas estas herramientas son muy caras de producir y de mantener y no solo económicamente.

Hay unos socios que aportan su trabajo en la Junta, viajan una o dos veces al mes, se reúnen y, mientras tanto, se comunican por correo. De esta manera mantienen la máquina **ATAE** en marcha, decidiendo en qué proyectos nos vamos a meter, a quién vamos a





prestar nuestro apoyo, dónde vamos a organizar nuevos cursos y de qué materia...

Pero no es suficiente. **ATAE** necesita la aportación de todos sus socios.

¿QUÉ HACER?

Todos podemos aportar algo: una cuota de nuestro tiempo (aparte de la económica). Podemos reservar un hueco en nuestro horario y guardarlo para nuestra asociación: la **HORA ATAE**.

Si es preciso, podemos marcarlo en nuestro plannig: "todos los lunes, de 20:00 a 21:00 (antes de cenar), ATAE" como si estuviéramos en la "ikas" y debiéramos presentar la tarea.


¿Y qué haremos en nuestra hora **ATAE**? Pues fácil:

leer nuestro **ATAEKARIA**, entrar en nuestra página **WEB**, informarnos de lo que está ocurriendo en la actualidad (estando al día ya estamos mejorando nuestra Asociación, ya estamos aportando algo). Haciendo esto, pronto nos surgirá la necesidad de dar nuestra opinión en los diferentes foros o de plantear otros nuevos. Así construiremos una opinión **ATAE** y, lo que es más importante, construiremos nuestra profesión.

Gracias a tu hora **ATAE** y a la del resto de los asociados, es posible que la próxima generación de técnicos no dirija focos sin arnés, no trabaje más de diez horas en una misma jornada y, si viaja para hacer un bolo, cobre ese día de viaje.

**NO SOLO DIGAS QUE ERES DE ATAE,
HAZ ATAE**

Entre Bolo y Bolo ... JUNTA



Boloen Artean ... BATZARRA

■ Ataekariaren 14. alea eta orain eskutartean duzun hau atera bitartean Batzordeak bilera bi ospatu izan ditu, Bilbaon azaroaren 8an eta Donostian abenduaren 13an, hain zuzen ere. Eta esan behar dugu bietan Elkartearen etorkizun hurbilerako oso garrantzitsuak diren kontuak eztabaidatu egin direla eta baita erabakiak hartu ere.

Donostiako UPV/EHUREN campusean mintegi eta tailer itxura hartuko duten bost ikastaro aurkeztu egin ditugu, udako programan sartzeko asmotan. Datorren otsailean jakin ahal izango dugu horietariko zeintzuk izan diren zuzendarien gustokoak. Era berean eta beste urteetan egin izan dugun legez, Bilbaon UPV/EHUREN udako eskeintza lektiborako beste bost ikastaro ere aurkeztu izan ditugu.

Gure erronkarik berritatzailena den aldetik, azpimarratu nahi dugu ATAEEK egingo duen ahalagin berezia, hurrengo 2006ko negu-udaberrian antolatuko den ikastaroan parte hartzeko bere bazkide guztiei proposatzeko orduan. Lan Arriskuen Prebentziorako oinarritzko ikastaroa izango da hau, ikuskizunen arloko arrisku bereziei buruzko 20 orduko luzapena izango duena, eta baita areto publikoei dagokien araudi berezia aztertuko duena. Ikastaroak semi-presentziatzko formatoa izango du eta bukatzerakoan, titulu ofizial homologatua lortu ahal izango da.

Bestalde, baina beti ere formakuntzaz ari garela, aipatu behar ditugu ATAEEK Bilbao Eszenan martxan jarriko dituen teknika eszenikoei buruzko tailer monografikoak. Lehenengoan Makillajea, Jantzigintza eta Diseinu eszenografikoa izango dira landuko diren arloak eta bigarrean Argiztapena, Soinua eta Eszena-Makineria.

Dagoeneko, web-orriaren itxuraldaketa amaitutzat eman dugu. Elkarteko bazkide guztiek eskuratu dute iada haietzako soilik diren web guneetan (lan eskeintzak, sustapenak, ikastaroak, curriculum vitae zerrenda) sartzeko behar den password-a.

Etorkizuneko Arte Eszenikoen Eskola sortzeko kontaktuak erritmo onean doaz eta baita martxan dabilzan lan-talde ezberdinak ere.

ATAEren babespean sortu izan da Murzian Murziako Herrialdeko Ikuskizunen arloko Teknikarien Elkarte Profesionala (Asociación Profesional de Técnicos del Espectáculo de la Región de Murcia), gure helburuak, "hitzez hitz", bereak egin dituen.

Ildo berean, esan behar dizuegu Madrileko Tramoiaien Elkartearekin harremanetan jarri garela "Maribel y la extraña familia" antzezlanean diharduen talde tekniko-artistikoari laguntzeko asmoarekin, haren lan-eskubideak errespetaratzeko borroka gogorrean ari dira eta.

Aldizkariak eskeintzen digun berriak zabaltzeko aukera aprobetxatu nahi dugu Batzordearen ondoko erabakia zuei jakinarazteko: kuotak ordaintzen ez dituzten bazkideek haien pribilegioak galdu egingo dituzte (deskontuak, webgune berezietan sartzeko password-a, Ataekaria etxean jasotzea etab.) arazoa konpontzen ez duten bitartean.

Amaitzeko, gure hurbileko proiektoen artean aipatu nahi dizuegu 2006ko otsailaren 12a eta 15a bitartean ospatuko den SIEL Feriara joateko antolatutako Parisarako bidaiak.



▲ Entre el Ataekaria nº 14 y el que ahora tienes en tus manos, la Junta Directiva ha llevado a cabo dos reuniones en Bilbao y Donostia, los días 8 de noviembre y 13 de diciembre, respectivamente. En ambas se han debatido cuestiones y se han tomado decisiones muy importantes para el futuro cercano de la Asociación.

Con formato de seminarios y talleres, se han presentado cinco cursos al campus de la UPV/EHU en San Sebastián, para optar a la inclusión en su programa de verano. El próximo mes de Febrero sabremos cuáles de ellos han calado en la sensibilidad de sus directores. Igual número de cursos ha sido propuesto a la ya clásica oferta lectiva estival de la UPV/EHU en Bilbao.

Como apuesta más innovadora cabe destacar el esfuerzo que ATAE realizará al proponer a todos sus asociados la realización de un curso básico de Prevención de Riesgos Laborales, ampliado con 20 horas de riesgos específicos del sector del espectáculo y los aspectos normativos correspondientes a locales de pública concurrencia, durante el próximo invierno-primavera del 2006. Un curso con formato semipresencial que ofrece el aliciente añadido de un título oficial homologado.

En otro orden de cosas, pero también dentro del ámbito formativo, ATAE pondrá en marcha dos talleres monográficos de técnicas escénicas en Bilbao Eszena. El primero de ellos abarcará las áreas de Maquillaje, Vestuario y Diseño Escenográfico y el segundo Iluminación, Sonido y Maquinaria Escénica.

Los cambios en la página Web están por fin terminados. Todos los socios tienen ya en su poder el password con el que acceder a sus áreas acotadas para miembros de la Asociación, tales como ofertas de empleo, promociones, cursos o exposición de curriculum vitae.

Los contactos para la creación de la futura Escuela de Artes escénicas siguen a buen ritmo, al igual que los diferentes equipos de trabajo que están en marcha.

Bajo el paraguas de ATAE se ha creado en Murcia la


Asociación Profesional de Técnicos del Espectáculo de la Región de Murcia que, "literalmente", ha adoptado nuestros objetivos. Y se han establecido contactos con la Asociación de Tramoyistas de Madrid, para apoyar al elenco técnico-artístico de "Maribel y la extraña familia" en la lucha que mantienen por hacer respetar sus derechos laborales.

Aprovechamos nuestro medio de difusión para comunicar que la Junta Directiva ha tomado la decisión de privar de los privilegios que disfrutaban (descuentos, password para acceder a la web, envío de Ataekaria, etc.) a todos aquellos socios que no se encuentren al corriente en el pago de sus cuotas. Esta situación se mantendrá hasta que regularicen su saldo deudor.

Finalmente, entre los proyectos más inmediatos se sitúa la programación de un viaje a París, para asistir a la Feria SIEL, que se celebrará entre los días 12 y 15 de febrero de 2006.



La profesión está de luto, nuevamente, por la pérdida de un compañero. Se llamaba Javier de Larios y el día 3 de diciembre murió en un accidente de tráfico. Técnico de monitores, chófer... Javier desempeñó sus tareas en múltiples facetas de las artes escénicas. No era miembro de ATAE, pero sí uno de los nuestros. Y desde aquí queremos decirle adiós por última vez.



El Ataekaria requiere dedicación, esfuerzo y mucha ilusión. No los desperdicies. Después de leerla no la tires y dásela a otra persona.

Ataekariak ilusio handia, ahalegina eta lana eskatzen digu. Ez itzazu alperrikaldu. Irakurri ostean ez ezazu zakarrontzira bota, eta beste norbaiti eman.





El Rincón de ELÍAS

ZORIONAK, ATAE

■ Inventario egunak gainean ditugu. Urtea amaitzear dago eta zenbaketa egin behar da.

Urte hasieran 144 bazkide baginen ere, orain 180 baino gehiago gara eta gure esparru geografikoa zabaldu egin da.

2005. urte honi hasiera eman genion SIEL eta AFIAL-en, feria hauen ostean Leioako Umore Azokan ibili ginen eta azkenik Bilbaoko Kale Antzerkiaren Jardunaldietan Gasteizko Zuzendaritza Teknikoaren I. Jardunaldietan ere izan gara. Gure berri izan dute baita Parisen, Bartzelonan, Madrilen, Andaluzian, Japonian... eta FIRCTE proiektuari esker, oraindik aurrera Europa osoan ere.

Gure idearioarekin bat datozen eta gure proiektua bultzatzen duten 5 enpresen konfidantza lortu dugu aurten eta aurreko urtean beste bi gureganatu egin ziren. Eta beste 15ek laguntzen digute gure proiektua aurrera ateratzen haien produktuetan egiten dizkiguten deskontuekin.

PALMADORES eta ATECat-en lankideen zorionak jaso egin ditugu. Eta udako ikastaroen arrakasta espero baino askoz handiagoa izan da.

Txalotu egin behar dugu aurten egindako lan eta ahalegin handia eta datorren 2006. urte berria ona izan dadila opa egin beharko gure buruari, urte ona izatea beharrezkoa izango dugu eta. Eta zertarako, ba?

Arte Eszenikoen Eskola lortzeko borrokan segitu ahal izateko, beti ere horretarako sortu egin zen plataformaren barruan. Bilbaoko Kultura Zinegotziarekin, Bizkaiko Kultura Diputatuarekin eta EHU/UPVren Errektorearekin izango ditugun bilerek markatuko digute bidea.

IBAI Ak, EPE-APV-k y EAB-k sortutako plataformari babesa emateko, horren bidez Eusko Legebiltzarrean ere entzun ahal izango baita gure ahotsa, ikusentzunezko gure lankideen kontratu programa betetzeko eskatuz.

Laneko segurtasuna, udan nahiz neguan etengabeko formakuntza eta gure lanbidearen duintasunaren aldeko borroka izango dira, datorren urtean ere, gure helburu nagusiak. Eta barauk lortzeko lanean segitu behar dugu, aurrera egin behar dugu etengabe eta nire lagun handi batek esaten duen moduan, denok batera arraunean, traineru bereko arraunlariak gara eta.

Zorionak ATAE, penintsula osoan ditugun bazkide eta laguntzaileek lanean segituko dutelako, orain arte lortu dugun guztia, eta duela lau urte eskas pentsaezina zena, izan dadila etortzeko denaren aurrean sortzen zaigun ilusio eta esperantzaren dizdira txikia.

Esandakoa:
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

▲ Son días de inventario. El año se acaba y hay que hacer recuento.

De los 144 socios que éramos a principios de año, hemos pasado a más de 180 y ampliando la influencia geográfica.

Empezamos 2005 en SIEL y en AFIAL, ferias a las que siguieron los encuentros de la Umore Azoka de Leioa, para acabar con las Jornadas de Teatro de



Calle de Bilbao y las I Jornadas de Dirección Técnica de Vitoria. Nuestra presencia se ha sentido en París, Barcelona, Madrid, Andalucía, Japón...y, gracias al proyecto FIRCTE, a partir de ahora, en toda Europa.

Nos hemos ganado la confianza de esas 5 empresas que creen y apoyan nuestro ideario, frente a las 2 que se nos unieron el año pasado. Y son 15 las que colaboran en nuestro proyecto ayudándonos con los descuentos en sus productos.

Hemos recibido felicitaciones de compañeros de profesión como PALMADORES o la ATECat. Y logramos superar con creces todas las expectativas generadas con los cursos de Verano.

Tenemos que felicitarnos por el esfuerzo y la dedicación a lo largo de este año y deseamos URTE BERRI ON para el 2006, porque nos va hacer falta.

Para seguir peleando por la Escuela de Artes Escénicas dentro de la plataforma creada para tal fin (las reuniones que mantendremos con el Concejal de Cultura de Bilbao, el Diputado de Cultura de Bizkaia y el Rector de la EHU/UPV encauzarán el camino a seguir).

Para apoyar la plataforma creada por IBAIA, EPE-APV y EAB, a través de la que nuestra voz se oirá también en el Parlamento Vasco, exigiendo el cumplimiento del contrato programa de los compañeros de audiovisuales.

La seguridad laboral, la formación continuada tanto en verano como en invierno, y la dignificación de nuestro trabajo seguirán siendo nuestros principales objetivos; y para conseguirlos debemos de continuar trabajando, empujando, apoyando y como dice un gran amigo mío, remando en la misma dirección, ya que todos estamos en la misma trainera.

Zorionak, ATAE, porque los socios y colaboradores repartidos por toda la península, van a pelear para que todo lo que hemos conseguido hasta ahora, algo impensable hace apenas 4 años, sea tan sólo una pequeña muestra de esperanza y de ilusión ante lo que está por llegar.

Lo dicho:

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

EZAGUTU...

CONOCE A ...



nº 179

Marcos Varona

Argiztapen teknikaria
Técnico iluminación

■ Oraingoan, Kantabrietik etorritako gure lehenbiziko bazkidea aurkeztu nahi dizuegu. Autodidakta porrokatua dugu bera, beti freelance moduan lan egindakoa, dituen giza-kualitateei esker taldeko lanera ederki egokitzen dena.

Azken bolada honetan argiztapenerako materialea erosten aritu egin da, eta horrek aukera emango dio bere buruaren nagusi izaten jarraitzeko, bere asmoa horrela betez.

Aurrera, lagun!

▲ Presentamos a nuestro primer socio de Cantabria, un empedernido autodidacta que, habiendo trabajado siempre como freelance, por sus cualidades humanas se adapta perfectamente al trabajo en equipo.


Actualmente está comprando material de iluminación, lo que le permitirá seguir siendo su propio jefe tal como es su propósito.

Ánimo, compañero.

¿A dónde vas sin él?

Lleva siempre contigo el carné de ATAE

Baina nora zoaz
ATAEren txartelarik
gabe?
Eraman ezazu
Beti zurekin.



ATAEREN BOST LAN-TALDEK MARTXAN DIHARDUTE

■ Oraintxe martxan diharduten elkarrean lan-talde ezberdinek ondoko bost gai hauei nagusiki ekiten diete:

- Ikusentzunezkoen alorraren plataforma
- Arte Eszenikoen Goi Eskola
- Formakuntza
- FIRCTE programa
- Sektorearen lan-araueketa

Ikusentzunezkoen alorraren plataforma
Lehenago gaiari dagokionez, IBAIA, EPE-APV eta EAB erakundeek osatutako ikusentzunezkoen alorreko Plataformak laguntza eta atxikimendua eskatu egin zizkion ATAERI. Plataforma honen helburua da Euskal Telebistak ikusentzunezko ekoizpen independienterako esleitua duen %5eko inbertsio-kuota bete dezan erreklamatzea.

Duela hiru urte sinatu egin zen Kontratu Programak argi ezartzen zuen kuota hau derrigorrez bete egin behar zela, baina badirudi agindua ez dela behar den moduan betetzen ari. Beharrezkoak diren idazkiak bidali izan ditugu bai kontrol batzordeari, baita EITBko kontratu programaren segimendu batzordeari ere, eta gura Elkartea plataformarekin batera dabil gedia betetzea helburu duen lanean.

Arte Eszenikoen Goi Eskola
Arte Eszenikoen Goi Eskolari buruzko gaien diharduen lan-taldearen gorabeherak Ataekaria honen beste atal batean dituzue irakurgai.

Formakuntza
Iadanik lau urte dira ATAE EHUREN Bizkaiko campus-arekin batera elkarlanean dabilela Arte Eszenikoen teknikarientzako bereziki diseinatutako udako ikastaroen programazioan.

Gaur egun, badugu ikastaroen eskeintza zabaldu eta hobetzeko asmotan dabilen lan-talde bat eta horretarako, Donostian EHUK antolatzen dituen Udako Ikastaroetan parte hartzeko proposamen-sorta bat aurkeztu egin dugu, beti ere oraintsu prestaketa-fasean dauden Bizkaian antolatuko diren ikastaroak ahaztu gabe.

Bestalde, ATAEen dugun asmorik handienetakoa da neguko ikastaroen eskeintza ezartzearena. Helburu hori lortu nahian Bilboko Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin ibili izan gara harremanetan, eta hauen erantzuna berehala jasotzeko esperantza dugu.

FIRCTE programa

Behin eta berriz aipatu izaten dugun formakuntzaren premia izan da Europar Batasunaren FIRCTE proiektu interesgarrian sartzen bultzatu gaituena. Teknikariaren formakuntzak ez dauka zentzurik teknikariak berak horretan parte hartzen ez ba du, eta hori dela-eta, Leonardo Da Vinci izeneko programan satu gara, ATAEren eritzi teknikoak bertan entzun dadin.

Baina FIRCTE (Formación Inicial y Reconocimiento de Competencias de las Técnicas del Espectáculo en vivo) proiektu honek ez dauka oraindik behar duen eragina, erakundeei dagokienez. Atxikimendutxostenak sinatuta izan arren, partaideen arteko hasierako bilera hiru bider izan da atzeratua. Hala eta guztiz ere, badirudi programa honen laugarren edizioari berehala emango zaiola hasiera, Tarrasako ESTAE-tik jakitera eman digutenez.

Sektorearen lan-araueketa

Ángel Agüerok, Santos García Lautrek eta Elías Otaolak osatzen duten bostgarren lan-taldea (bostgarrena, bai, baina ez txikiena!) gure sektorearen lan-araueketaz arduratzen da. Lan taldeak du helburu gure lanbidearen mapa eratzea, denok, etorkizunean, mapa horri buruz eztabaidatzeko asmoarekin. Behin lan hori egin ezker, lan taldearen hurrengo pausua litzateke aurretik adostutako gure lan-erreibindikazioak enpresa eta erakundeei azaltzea.

Bidea zabaldu egin dugu baina, tamalez, lan-taldeak biltzen diren mahaien inguruan baditugu aulki libreak. Denok ikutzen gaituzten gaietan lan egiteko interesa duten ATAEko partaideak eseri daitezke bertan, ez ahaztu!

Guztionez ahaleginari esker, tunelaren amaieran argi-izpitxoak beharbada antzemango dugu.

ATAE MANTIENE EN MARCHA CINCO EQUIPOS DE TRABAJO

▲ Los diferentes equipos de trabajo que en este momento están funcionando en la asociación dedican sus esfuerzos, principalmente, a cinco temas:

- Plataforma del sector audiovisual
- Escuela Superior de Artes Escénicas
- Formación
- Programa FIRCTE
- Regulación laboral del sector

Plataforma del sector Audiovisual

Respecto al primero de los temas, la Plataforma constituida por IBAIA, EPE-APV y EAB, solicitó el apoyo y la adhesión de ATAE a la plataforma del sector audiovisual. Su objetivo no es otro que reclamar el cumplimiento de la cuota de inversión del 5% en producción audiovisual independiente que tiene asignada Euskal Telebista.

El Contrato Programa firmado hace tres años, ya establecía claramente el obligado cumplimiento de esa cuota, que parece ser que está siendo incumplida. Se han remitido escritos a la Comisión de Control Parlamentario y a la Comisión de Seguimiento del contrato Programa de Eitb, así como a ésta misma y nuestra Asociación participa en el trabajo conjunto encaminado a conseguir la observancia del condicionado legal.

Escuela Superior de Artes Escénicas

Respecto a la Escuela Superior de Artes Escénicas, la tarea desarrollada por el equipo de trabajo en esta área, está explicada, con más detalle, en otras páginas de Ataekaria, a las que os remitimos.

Formación

Desde hace cuatro años, ATAE colabora con el campus de Vizcaya de la UPV en la programación de cursos de verano, específicamente diseñados para técnicos de las Artes Escénicas.

En la actualidad, un equipo de trabajo intenta extender la oferta lectiva y, para conseguirlo, se han presentado una serie de propuestas a los Cursos de Verano organizados por la UPV en Donostia, sin perder de vista los centrados en Vizcaya que, en estos momentos, se están dibujando en su fase inicial.

Por otra parte, uno de los objetivos más ambiciosos de ATAE es el establecimiento de una oferta invernal. Y a este fin se han encaminado las gestiones llevadas a cabo ante el Ayuntamiento de Bilbao y la Diputación Foral de Vizcaya, de los que esperamos respuesta en breve.

Programa FIRCTE

Nuevamente, es la formación el tema que nos ha llevado a integrarnos en FIRCTE, este interesantísimo proyecto de la Comunidad Europea. La formación del técnico, pero sin el técnico, no tiene sentido y es por ello que ATAE elevará su “técnica palabra” dentro del programa Leonardo Da Vinci.

Sin embargo, FIRCTE no termina de despegar, institucionalmente hablando. La reunión inicial entre sus diferentes socios, pese a estar firmadas las cartas de adhesión, ha sido pospuesta en tres ocasiones. Sin embargo, los contactos permanentes con la ESTAE de Tarrasa indican que el arranque de esta cuarta edición del programa de Formación Inicial y Reconocimiento de Competencias de las Técnicas del Espectáculo en vivo, se producirá en breve.

Regulación laboral del sector

El quinto equipo de trabajo, pero no el menos importante, formado por Ángel Agüero, Santos García Lautre y Elías Otaola, atañe a la regulación laboral de nuestro sector. La meta fijada es la elaboración de un mapa de nuestra profesión que pueda ser debatido, en un futuro cercano, por todos nosotros. Con ese trabajo realizado, el siguiente paso se centraría en la exposición de nuestras reivindicaciones laborales, previamente consensuadas, a empresas e instituciones.

En camino está abierto, pero en torno a la mesa hay sillas vacías que pueden ser ocupadas por los miembros de ATAE interesados en colaborar en cualquiera de las cuestiones que, evidentemente, nos interesan a todos. Con el esfuerzo común, a lo mejor empezamos a ver una pequeña luz al final del túnel.

Gure lan-arloko plataforma zabal baten helburua


DENONTZAKO ARTE ESZENIKOEN ESKOLA

■ ATA Eren bazkideen artean eskakizunik hedatuenerikoa dugu etengabeko formakuntza lortzea, beste lanbideetan ematen den moduan. Orain arte EAEn gai honi dagokion lorpenik handiena izan da ATA Ek UPV/EHUrekin batera koordinaturiko udako ikastaroak antolatzea.

Pasa den irailetik aurrera, Jon Mesperuzak eta Elías Otaolak sortu duten lan-taldeari esker, ATAE Arte Eszenikoen Goi Eskola bat behingoz sortzeko helburua duen plataforma baten barruan sartu egin da, beste Autonomia Erkidego batzuetan (Madril, Andaluzia, Murtzia, Valentzia, Asturias, Catalunya eta Canarias) dauden eskolen ereduari jarraituz. Baina alde esanguratsu batekin. Beste inongo eskoletan teknikarien formakuntza ez da ikasketa arautuaren barruan sartzen. Eta gure proposamenean BAI.

Bultzatzaile ugari

Gure Elkartez gain, aipatutako plataforma hau ondoko hauek osatu eta bultzatzen dute: Euskal Antzeleen Batasuna, Antzerkigileen Elkartea, Euskal Herriko Gidoilari profesionalen Elkartea, Artebi, antzerki konpainia ugari, T(ARTE)AN, FAS eta hurrengo pertsona ospetsu eta esanguratsuak arte eszenikoen munduan: Santiago Burutxaga, Carlos Panera, Algis Arlauskas, Ramón eta Pedro Barea, Ignacio Amestoy, Juanma eta Eduardo Bajo Ulloa, David Barbero, Concha de la Casa, Koldo Anasagasti,



Esther Velasco ... eta beste asko, 72 izenez osatutako zerrenda bete arte!

Denok elkarlanean prestatu dugu “Arte Eszenikoen Goi Mailako Hezkuntza Zentro bat sortzeko proposamena” izeneko txostena, eta baita Bilbaoko Kultura zinegotzia den Jon Sánchez-i eta Bizkaiko Kultura diputatua den Ricardo Bilbaori eman ere. Hauek interes handiz hartu dute gure proposamena eta lanean jarraitzen animatu egin gaituzte, baina hurrengoetan gure ahaleginak Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hezkuntza Sailerara zuzentzeko aholkatuz.

Eskola osoa

Gure asmoa da teknikariak, aktoreak, zuzendariak eta dantzariak berdintasunean biziko garen Goi Eskola sortzea, formazio-eskeintza arautu baten barruan. Gure lanbideari dagokion instalazio eta ekipamenduak dituen eskola. Eszenografia, jantzigintza, soinu eta argiztapen-tailerrak dituen eskola. Makillaje eta karakterizazioerako gelak dituen eskola. Eta, nahiz eta minimoen Dekretuak horrela arautu ez, soinu eta argiztapen sistemak, kamarak eta edizioerako ekipoa dituen plato bat duen eskola.

Egitasmo honek errealitate bihurtzeko aukera handia dauka, zeren eta, orain arteko beste proiektok ez bezala, eragin handia izan bait du ukitzen dituen agente kulturalen sensibilitatean.

Orain, amets hau gauzatzeko ahalmena Kulturarako Euskal Planaren eta Unibertsitatearen beraren eskuetan dago.

Asmo onez betetako bide luzea dugu aurretik. Plataforma osatzen dugun guztiek ondotoxo dakigu etorkizuneko eskola hau sortzea ez dela erreza izango. Baina oso argi daukagu geure etorkizuna eta gure lanbidearen etorkizunaren aldeko apostua egiten ari garela. Gure oraingo egoera zeharo irauli dezakeen ekintza baten lehengo atalean ari gara.

Erakundeekiko harremana

Idatzi dugun txostena nahi duenak dauka ATA Eren bulegoan eskuragarri. Garrantzitsua da jakitea gure eskari hau bidaliko dugula hiru euskal hiriburuetako udaletara, hiru diputazioetara, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Sailerara eta Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoreari ere, azken batean berdin zaigulako non kokatuko den Arte Eszenikoen Goi Eskola. Gure ustez benetan garrantzitsua dena behingoz egitea da, eta ahal den neurrian, behar den moduan ere egitea.

Objetivo de una amplia plataforma del sector

UNA ESCUELA DE ARTES ESCÉNICAS PARA TODOS

▲ Entre las cuestiones más demandadas por los socios de ATAE se sitúa el acceso a la formación continuada que disfrutaban otras profesiones. Hasta ahora, en la CAV, los máximos logros en este aspecto se circunscribían a los cursos de verano que ATAE coordina junto con la EHU/UPV.

Desde el mes de septiembre, mediante el equipo de trabajo formado por Jon Mesperuza y Elías Otaola, ATAE forma parte de una plataforma para conseguir de una vez por todas una Escuela Superior de Artes Escénicas, semejante a las existentes en otras comunidades como Madrid, Andalucía, Murcia, Valencia, Asturias, Cataluña y Canarias. Pero con una significativa diferencia. En ninguna de ellas se contempla la formación de los técnicos dentro de la enseñanza reglada. En nuestra propuesta **SI**.

Amplios apoyos

Además de nuestra Asociación, componen y apoyan la mencionada plataforma la Unión de Actores Vascos, la Asociación de Autores de Teatro, la Asociación de Guionistas Profesionales de Euskal Herria, Artebi, infinidad de compañías de teatro, T(ARTE)AN, FAS y personalidades tan significativas como Santiago Burutxaga, Carlos Panera, Algis Arlaukas, Ramón y Pedro Barea, Ignacio Amestoy, Juanma y Eduardo Bajo Ulloa, David Barbero, Concha de la Casa, Koldo Anasagasti, Esther Velasco y así hasta completar una lista de más de 72 firmas.

